

MOZIO ARRUNTA,

OSAKIDETZAK DONOSTIAN IRAGARRITAKO MURRIZKETAK DIRELA ETA

Juan Karlos Izagirre Hortelano EH BILDU udal taldeko bozeramaileak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, honako MOZIO ARRUNT hau aurkezten du, **Osakidetzak Donostian uda honetan bereziki, baina baita urte osoan ere, egingo dituen murrizketak direla eta.**

JUSTIFIKAZIOA

Osakidetzak publiko egin ditu, beste behin, udaran Donostian egingo dituen murrizketak, osasun-zentro batzuk itxiz eta beste batzuetan ordutegiak murriztuz. Iragarri duenez, gutxienez, anbulatorio hauetan eragina izango dute: Bidebieta, Intxaurren, Aiete eta Egia. Horri gehitu behar zaizkio Bengoetxea kaleko EAG-PACen urte osoan izaten diren murrizketak, txanda asko eta asko medikurik gabe egiten baitira.

Entzun izan dugu murrizketa horien arrazoa dela, tartean, erabiltzaileen eskaerak gutxitu egiten direla udaran. Hori ez da zuzena, garbi baitago Donostian artatu beharreko populazioa gehitu egiten dela udaran. Medikua falta ere aipatu da: oporrak hartu behar dituztela eta horrek behartzen duela Osakidetzak erabaki hori hartzea. Osakidetzako profesionalek oporrak hartzeko eskubide osoa dute, noski. Baina egoera horrek erakusten du aurretik planifikazio falta ikaragarria izan dela -gaur egungo baliabideekin oporraldiari nola aurre egin adostekoan-, baita Osakidetzako arduradunek ez dietela kasurik egin ere aspalditik, behin eta berriz, sindikatuek eta EH Bilduk egindako plangintza-eskaerei. Murrizketa horiek Osakidetzak azkeneko urteetan hartutako zoritarreko norabidearen eta erabakien ondorio zuzena dira.

Arduragabekeriak jokatu da, erantzukizun politikoak daude, ez da aurreikuspen egokirik egin, eta ez da langileen ordezkariekin, sindikatuekin, soluziorik bilatu nahi izan. Ez dira kontuan hartu EH Bilduk egindako proposamenak, aurretik langileekin landutakoak. Ezkusiarena egitea edo garrantzia kentzea izan da Osakidetzaren erantzuna urte luze hauetan. Ez da posible normalizatu nahi izatea osasun sistemak eskaintzen dituen zerbitzuetan murrizketak noiznahi ezartzea. Ez da posible herritarrek ez jakitea kontsulta batera joaten direnean medikua egongo den edo ez, anbulatorioa itxita egongo den edo ez.

Eta horrek donostiarrengan eragina zuzena du, noski. Eta horren aurrean, donostiar guztien ordezkariak garen heinean, obligazioa dugu halakorik gerta ez dadin eskatzea, gure herritarren eskubideen defentsan.

Honegatik guztiagatik aurkezten dugu honako MOZIO hau:

MOZIOA ARRUNTA

1.-Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Osasun Sailari, herritarrei kalitatezko arreta ziurtatzeko, Donostiako osasun etxe eta Etenik Gabeko Arreta Guneetako ordutegi eta txanda guztietan beharrezkoak diren espezialitate eta kategoria guztietako osasun profesionalak ezar ditzala, medikuak barne, eta horretarako, has dadila pertsonal politika eraldatzen eta Osakidetzako mahai sektorialean epe motz, ertain eta luzera begirako neurriak osasun langileen ordezkariekin adosten.

2.-Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Osakidetzari Donostialdeko ESIrako udako opor sasoiari begira kontingentzia plan propioa definitu eta adostu dezala bertako osasun langileekin.

3.-Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen die Osasun Sailari eta Osakidetzari, Donostiako Etenik Gabeko Arreta Guneetako eta osasun etxeetako ateetan eta iragarki tauletan zer osasun zerbitzu izango diren eta zer ordutegi izango duten gardentasunez azaltzeaz gain, komunikabideen bidez ere herritarrei hori bera jakinaraztea, herritarrek momentu oro jakin dezaten nora jo beren gaixotasun edota larritasunaren arabera.

Donostian, 2024ko ekainaren 7an

Juan Karlos Izagirre Hortelano
EH Bildu udal taldeko bozeramailea